

Herririk Herri |3|

Abadiñoko Mendiola errekan udan isuriak izan direla salatu dute

Kultura |12|

Donostiako Zinemaldian aurkeztuko dute Baleukok ekoitzi duen 'Izarren argia' filma



Kirola |16|

Nerea Amilibia da faborito emakumeen Sorginen Lasterketa irabazteko

Supermoto eta klasikoen erakustaldia bihar Astolan

> Abadiñon 70eko hamarkadako moto klasikoen lasterketa antolatuko dute lehenengoz

> Txus Jaiok eta Igor Urien abadiñarrak autoekin duten trebezia erakutsiko dute

15

Urteko azkeneko lauhileko kultur programazioa prest

KULTURA• Arantza Arrazola programatzaileak eta Marijose Balier zinegotziak asteen aurkeztu dute San Agustin kulturgunearen datozen lau hiletarako programazioa. Hamalau emanaldi jasotzen ditu egitarauak guztira, eta horietako bost dira umeei zuzendurikoak. Haurrentzako antzezlan bat izango da ikasturteko lehenengoa. 11

"EKT enpresako lan istripua prekarietateagatik gertatu da"

Iurreta• Euskal Kataforesis (EKT) enpresan 39 urteko emakume bat hil zen, joan zen barikuan, lan istripuan. Meltxor Unzueta LAB sindikatuko delegatuak urteak daromatza enpresako beharginen lan erritmo handi eta estua salatzen. Abenduan Lan Ikuskaritzan aurkeztu zuen salaketa. "Mugamugan" jardun dutela beharrez azaldu digu, eta "prekarietateagatik" gertatu dela istripua. Astelehenean elkarretaratzean bildu ziren enpresaren aurrean. Martitzenean lanera bueltatzea gogorra izan zela azaldu digu Unzuetak. "Enpresakoei susto handia hartu dute, baina guk handiagoa".

8



Kepa Aginako

•Elorrio

Sortzez Garbiaren erretaula eraberritu dute

6

•Berriz

Frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldiak

4

•Otxandio

Andikona plaza urbanizatzeko lehen fasea abiatuko dute

7

•Zaldibar

Zaldi gaineko ikuskizuna eta jaia asteburuan

7

inaugurazioa
irailak 10, ostirala
19:00etatik 21:00etara

Zurea

DATE
Tretorn
MOSCA NUEVA
le cop sportif
FRED PERRY
Onitsuka Tiger
RVLT

Montebideo etorbidea, 3 · 48200 Durango

HERRIRIK HERRI >

ABADIÑO

Kanpin-dendak jaso eta joan dira zubipetik

Eroski ondoan, Abadiñotik datoren errepideak N-634agaz bat egiten duen zubiaren azpian, egon dira 25 lagun hiru astez dendetan bizitzen. Astelehen eguerdian, udalagaz hitzartutako moduan, kanpamendua desegin eta joan egin ziren bertatik. Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez, joan zen egunean esan omen zieten bertan bizitzaren jarritakoei asteleheneko 12:00ak baino lehenago joan beharko zutela zubiaren azpitik.

Udalaren agindua betez, Jose Luis Navarro Abadiñoko alkateak azaldu duenez, astelehenean dendak desegin eta "euren kabuz" joan omen ziren.

Astelehenean dendak desegin eta joan egin ziren azken asteetan Eroski ondoko zubipean bizi ziren 25 lagunak

Oraingo hau ez da, Talde Independienteko alkateak azaldu duenez, Abadiñon halako kanpamendu bat egon den lehenengo aldia. "Aspalditik datorren kontua da", alkatearen berbetan. "Gauetan sarri etorri izan dira lo egitera, eta egunez alde egin izan dute", Navarrok azaldu duenez. ■ I.E.

Aitei zuzenduriko masaje ikastaroa bost saiotan

Bereziki aitei zuzenduta antolatuta Abadiñoko Udaleko Berdintasun Sailak umeei masajeak emateko ikastaroa, hirugarren urtez. "Aiten eta seme-alaben arteko lotura, batez ere ukimenaren bitartez, sendotzea" da ikastaroaren helburua, antolatzaileek azaldu dutenez. Urte honetan jaiotako umeen aitei dago zuzendua.

Urte honetan jaiotako umeen aitei zuzenduta dago Berdintasun Sailak antolatuta duen masaje ikastaroa

Irailako hirugarren astean hasiko dute ikastaroa, eta bost saio egingo dituzte hurrengo asteetan. Ikastaroaren aurkezpena Errota kultur etxean egin zuten irailaren 8an, eta, aurkezpenaren ondoren eman izen zuten interesdunek ikastaroan izena. ■ I.E.

Aita-semeen arteko lotura masajeen eta ukimenaren bitartez lantzea da ikastaroaren helburua

Uda honetan bigarrenenez, erreka kutsatuta Mendiolan

Ehunka arrain eta karramarro hilda agertu dira asteburuko isuri kutsakorren ondorioz

Uztailaren 12an gertatu zen asteburu honetakoaren aurreko isurketa, eta erreka leheneratzen eta bizia berreskuratzen hasia zegoenean ur kutsatuan berriro "ehunka arrain eta karramarro hil" dira, Mendiola auzokideek salatu dutenez. Auzotarrek eurek deitu dute isurketaren berri ematera Jaurilaritzako Ingurumen Sailera, eta auzoan izan dira Ura Agentziako teknikariak datu-bilketa egiten.

Oso ur gutxigaz dator asteotan erreka, eta dauden ur-putzuetan bistan daude kutsadurak hildako animaliak. "Uztaileko zein azkeneko isuri kutsakorren jatorria aldameneko enpresa" dela eman du Udalak jakitera: duela zenbait urte hondakinak erreka bota beharrean tratatzeko sistema berria ipini zuten enpresan, baina, auzotarrek azaldu dutenez, "enpresaren kanpoaldean metatzen dituzten hondakinetatik filtratzen da kutsadura erreka".

Auzotarrek diotenez, gogaituta daude egoeragaz: amuarriak, karramarroak eta beste hainbat arrainen bizilekua azken hile biotan birritan kutsatu dutelako, batetik, eta baita erreka ura ortuak ureztatzeko erabiltzera ere ez direlako ausartzen, bestetik.

Neurriak hartu ditzatela

Orain hamarkada bat inguru, urtean behin, gutxienez (auzotarrek azaldu dutenez, gehienetan udako oporren bueltan), aldameneko enpresako isuriren baten inguruko salaketa ipini behar izaten zuten: askotan bizi izan dute egoera hau bera Mendiolan.

Azkeneko lau-bost urteetan, baina, egoera asko hobetuta zegoela eta uztailekoa arte beste isurketarik ez dela gertatu nabarmendu dute mendiolarrek. Dagoen agintariei, halako isurketarik berriro gertatu ez dadin beharrezko neurriak hartu ditzatela eskatu diete auzotarrek. ■ I.E.



Oso ur gutxigaz dator erreka, gainera, egunotan.

EAJ: "Polita bada parkea, baina ez da batere erabilgarria"

Eguaztenean plazaratu zituzten euren kritikak jeltzaleek, eta atzo erantzun zien alkateak



Jeltzaleak, uztailetik zabalik dagoen parke berrian.

Traña-Matiena auzoan uztailean inauguratu zuten Uribitarteko parkeak umeentzako dakarren "arriskua" salatzeke, parkean bertan egin zuten agerraldira deitu dituzte jeltzaleek hedabideak.

Eneko Etxebarria EAJren udal hauteskundeetarako hautagaia, Axier Garate egungo zerrendaburua eta Matias Sendino zinegotzi jeltzalea batu dira udal gobernuaren kudeaketaren inguruko salaketa plazaratzera. Parkea, izan "oso leku polita" dela baina ez dela "batere praktikoa" diote jeltzaleek. "Halako inbertsio propagandistiko gehiago ez egitea" ere eskatu diote udal gobernuari.

"Inaugurazio egunean jendea urmalean bainua hartzera bultzatu zuen alkateak berak"

Parkea erabiltzaileentzat osasungarria izan dadin neurriak eskatu zituzten

Jeltzaleen berbetan, parkean ipini duten urmaeleko ura bainurako kontrolik eta tratamendurik bakoa izan arren, "Navarro alkatea bera bainujantziagaz etorri zen inauguraziora, eta herritarrak ingurua bainurako-gune tzat era-

biltzera bultzatu zituen". Ondoren eman omen du jeltzaleen iritziz gobernuak atzerapausoa; "EAJk gaia udalbatzarrean mahai-gaineratu zuenean hartu zuen urmalean bainua debekatzeko erabakia gobernu taldeak".

Parkea erabiltzaileentzat osasungarria izan dadin beharrezko neurriak hartzeko eskatu diote jeltzaleek udal gobernuari: urmaeleko urak bainurako kontrolik eta tratamendurik ez badauka, gobernuak "jendea sartu ez dadin neurriak hartu ditzala" eskatu dute.

Alkatearen erantzuna

Jeltzaleek egindako kritikei erantzun zien, atzo kaleratutako ohar batean, Jose Luis Navarro alkateak. Gunea aisialdirako prestatutako lekua dela dio. "Umeek bertan jolastea baimenduta dago, baina laku artifizialeko uretan sartzea debekatuta dago", dio Navarrok: "Ez da igerileku bat".

Bestalde, parkea erabilgarri egon den udako hilabete bietan Durangaldeko "ehunka" umek Uribitarteko parkea olgetarako erabili dutelako oso pozik daudela adierazi zuen Jose Luis Navarro alkate abadiñarra.

Oharra amaitzeko, "2009ko udal aurrekontuaren aldeko botoa eman zutenean, parke hori erakitzea onartu zuten jeltzaleek", azpimarratu du alkateak. ■ I.E.



IURRETA

Lan istripuaren ondoren, sindikatuek EKTko "lan erritmo biziogia" salatu dute

Joan zen barikuan langile bat beharrean hil eta gero, segurtasun neurri duinak eskatzeko kontzentratu dira



Langileek eta sindikatueta ordezkariek astelehenean ordu erdiko elkarretaratzea egin zuten EKTn.

Arriandiko EKT Euskal Kataforesis enpresan joan zen barikuan behargin bat hil zen kontenedore biko gainera jausi zitzaizkionean. Astelehenean, EKT aurrean kontzentratuta, sindikatuek ezbeharra enpresak ezarritako "lan erritmo estuegiagatik" gertatu dela salatu dute.

ELAko Bizkaiko lan osasunerako arduradun den Leire Herediak gogoratu duenez, "enpresa batzordeak sarri salatu ditu zuzendaritzan lan baldintza desegokiak". Erantzunik ez dutela jaso azaldu du Herediak: "Horrelako ezbeharren aurrean administrazioek eta enpresek beste alde batera begiratzen dute".

LABeko Durangaldeko metal arloko arduradun Marieli Urriolabeitiak erakundeei enpresetan "esku hartzeko" exijitu die: "Krisiaren aitzakiagaz langileei sakrifizioak egiteko eskatzen diete, eta langile bat hiltzen bada zorte txarra dela diote. Ez da zorte txarra: enpresaren eta administrazioen errua da".

UGTko Durangaldeko arduradun Mauricio Garciak ere enpresak ipinitako "lan erritmo biziogia" salatu du. UGTk abenduan enpresako gerentziari baldintzak hobetzeko neurriak eskatu zituela eta erantzunik ez dutela jaso gogoratu du. ■ J.D./A.U.

Kofradia Eguna ospatuko dute domeka honetan

Laixiarren egun-pasa egiteko 500 bat lagun elkartuko dira XXXVII. Kofradia Egunean

Kofradia urteko kontuen berri ematea jairako aitzakia izaten da Kofradia Egunean. Domeka honetan ospatuko da aurten jai egun hori, urtero legez, Laixiarreko landan.

Eguerdiko 12:00etan hasiko da jai-eguna, kofradien urteko kontuak aitzakia hartuta

Iurretako sei kofradiek (San Marko, Santa Maña, Fauste, Oroz-keta, Iurreta eta Goiuria) 70eko hamarkadatik ospatzen dute Kofradia Eguna, baina kofradien lehengo berriak aspaldikoak dira. XIII. mendean sortu zen egitura,

baserri-auzoetako premiei erantzuteko; basoak zaintzeko auzolana da oinarri. Basoetatik ateratako etekinak auzoetako lanetarako erabiltzen dituzte: argiteria, uren bideratzea, bideen konponketa...

Egitaraia

Eguerdiko hamabietan hasiko da jai-giroa Laixiarren. Meza edukiko dute, eta ondoren Kofradien Batzar Orokorra. Orduantxe eman go dute urteko kontuen berri. Ondoren, Iurretako dantzarien emanaldia eta bertso saioa egongo dira. Bazkaritarako ordua helduko da gero, eta arratsaldean umeentzako jolasak eta erromeria izango dituzte. ■ A.U.

Orozketako errepidea, hilabeteen konponduta

Iazko urte amaieran egondako euriteetatik hondatuta dagoen errepide zatia laster konponduko dute Orozketan. Udalak konponketak egiteko lanak esleitu ditu, eta 30.000 euro ordainduko ditu hilabete inguru iraungo duten beharreatatik.

Errepideak 15 metroko zati batean arrakalak ditu, eta zati batzuk hondoratuta dauzka. Zorua konpontzeko errepidearen zati bat altxatuko dute, eta aurrerantzean lur-jausiek kalterik ez egiteko, errepide alboko lur-eremua edo ezponda garbitu eta hormigoizko zoruagaz eta horma bategaz sendotuko dute. Horren ondoren, kaltetutako erreia asfaltatuko dute. ■ A.U.

ATXONDO

Zergak eta tasak lantzen hasi da Ogasun Batzordea

Gobernu taldeak 2011ko zergak eta tasak lantzeko ekarpenak jaso gura ditu

Atxondoko Udaleko Ogasun Batzordea 2011ko zergak eta tasak lantzen hasi da. David Cobos alkateak jakitera eman duenez, "ogasuneko batzarrak zabalak dira, eta oposizioaren eta herritarren proposamenak jasotzea da gobernu taldearen asmoa". Idatziz ere ekarpenak udalera bidaltzeko aukera dago. Alkatearen berbetan, aurrekontuak ere bide honetatik egin dituzte.

Udalak ezartzen dituen zerga eta tasa guztiei ehuneko portzentaia bera igo beharrean, banan-banan aztertzeko gaia dela adierazi du Cobos alkateak. Kri-

sia tarteko, azken bi urteotan zergen eta tasen kongelazioa ia orokorra izan dela gaineratu du. Berriki beharreko gaia dela azaldu du alkateak: "Bonifikazioak ezartzea aztertzen gabilta".

Urtea amaitu orduko zergak eta tasak boletinean publikatuko dituzte, eta hilabeteko epean alegazioak aurkezteko aukera izango da. ■ J.G.

Proposamenak jasotzeko batzar zabalak egiten dituztela azaldu du alkateak

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DiBA

KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

ZARATE ELEXPE

ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

BERRIZ

Frankismoaren biktimak omentzeko ekitaldia burutuko dute bihar

Eguerdiko 13:00etan izango da eguneko ekitaldi nagusia, lore eskaintzagaz; horren aurretik *Los caminos de la memoria* dokumentala proiektatuko dute

Felipe Urtiaga, alkate izan zena, eta Jose Agirre, guardia herritarra, fusilatu egin zituzten 1937ko irailaren 11n. Hauei eta frankismoaren gainera-ko biktimei gorazarre egiteko asmoz, ekitaldia eratu ohi du 2005etik udalak, eta 2007tik Berriz 1936 Gogoratzen elkartearen badago antolatzaileen artean.

Bihar, 13:00etan, izango da ekitaldia. Horren aurretik, baina, 11:00etan, *Los caminos de la memoria* dokumentala eskainiko dute Kultur Etxean. Erbesteratuen iloba dalan honen zuzendaria; Jose Luis Peñafuente, hain zuzen ere. 2007an Memoria Historikoaren Legea onartu zenean hasi zen lanean proiektu honetan.

Esandako moduan, eguerdian ekitaldia izango da Urtiaga plazan, lore eskaintza batez.

Bertsolariak ere hurreratuko dira ekimenara, eta Etxe musikariak *Gogoan doguz Berrizen* izeneko kanta abestuko du; 2008an berak eta Xabier Amurizak eginikoa.

Gaur, dantza ikuskizuna

Biharkoa ekitaldi garrantzitsua izan arren, hile hasieratik martxan dago egitaraua. Aranzadik hila-bien gainean eginiko erakusketa izan da Kultur Etxean, eta bihar itxi-ko ditu ateak. Gaur, bestalde, dantza emankizuna izango da pilotalekuan, Aukeran dantza konpainiaren eskutik. *Gernika, mihise gaineko dantza* ikuskizunean, "bonbardaketan hildakoak heriotzatik bueltatuko dira, gertatutakoa kontatzeko". "Hondamendiaren" aurretik zelan bizi ziren azalduko dute; gaueko 22:00etan da hitzordua. ■ M.O.

Lore eskaintza, bertsolariak eta Etxe musikariaren emanaldia izango dira bihar eguerdiko ekitaldian

Gernika, mihise gaineko dantza ikuskizuna eskainiko du, gaur, Aukeran konpainiak



laz ere lore eskaintza egin zuten irailaren 11ko ekitaldietan. I.G.

IZURTZA

Herriko jaien bigarren astebururako programa

Gaur dute Jaietako bigarren barikua izurtzarrek: frontenisa eta DJak dira gaurko proposamenak



Joan den asteburuko jai-giroa. K.Aginako

GARAI

Kultur etxea egiteko lanen bigarren fasea martxan

Lau hilabete beharko dira fasea burura eroateko; lehenengo eta bigarren pisuak atonduko dituzte

Astelehenean hasi zituzten kultur etxea izango denaren obretako bigarren ataleko lanak. Lau hilabeteko epean amaituta egotea itxaroten dute udal ordezkariak, eta 129.784 euro erabiliko dituzte horretarako; Zamakoa enpresari adjudikatu zioten, joan zen abuz-

Argia eta uraren distribuzioa egokituko dituzte; komun berriak ere ipiniko dituzte

Orain astebete txupinazoa jaurti zutenetik herrian bizi den jai-giroa asteburuan biziagotzeko, gaur, bihar eta etzirako, goiz, arratsalde zein gauerako hainbat proposamen batzen ditu Izurtzako jai-egitarauak. Frontenis txapelketaren finalerdiak eta finalak jokatuko dituzte frontoian gaur, 18:00etan, eta DJen txanda izango da gauean, 23:00etan hasita, Gaztelekuan.

Goizean barik arratsaldetik igarriko da bihar, zapatuan, jai-giroa gehien. Kirolagaz da bihar-ko lehenengo hitzordua ere: mendiko bizikleta ibilaldia antolatu dute 16:00etan. Afalorduaren bueltan, bestalde, tortilla txapelketa eta cous-cous dastaketa izango da gerturatzen diren guztientzat.

Domekan, 10:00etan ekingo dio Jaizale taldeak azken jai-eguna musikaz berotzeari, eta Mendigain dantza taldearen emanaldia eta bertsolarien saioa egongo da, besteak beste, ondoren. ■ I.E.

tuan, lanen ardura. Urteko aurrekontuetako egitasmo garrantzitsuenetarikoa da honako hau.

Lehenengo fasean, besteak beste, igogailua ipini eta fatxada eraberritu ondoren, lehenengo bi pisuak atontzeari ekingo diote. Hain zuzen ere, argia eta uraren distribuzioa egokituko dute. Gainera, komun berriak ere ipiniko dituzte. Lanok elbarrien baldintzen arabera egingo dituzte, udal arduradunek azaldu dutenez.

Proiektu orokorrak hirugarren fase bat beharko du, hornikuntzagaz lotutakoa berau; 2011n garatzea itxaroten dute. ■ M.O.

DURANGALDEA

Mendekotasuna duten lagunak zaintzeko Zaindu programa abian

Durangoko Udalak eta Durangaldeko Amankomuzgoak elkarlanean Zaindu programa abiatu dute, mendekotasuna duten senideak zaintzeko trebakuntza eskaintzeko helburuagaz.

Ekintza horiek mendeko pertsonen zaintzaile ez profesionalen zuzenduta daude eta doakoak dira. Irailaren eta urriaren zehar konferentzia bat eta bina ikastaro eta mintegi garatuko dituzte.

Mintegiak mendekotasun dutenen arretarako eskualdean dauden gizarte baliabideak jakinaraztea du helburu. Iraileko martitzenetan eta urriaren 5ean egingo dute Joxe Migel Barandiaran egoitzan. Bigarren mintegian gai horren gaineko webgune interresgarrien berri emango dute Albaian Estudios Informaticos-en egoitzan.

Mintegiak, konferentziak eta ikastaroak izango dira irailaren eta urriaren zehar

Urriaren 16ko Konferentzian pertsona nagusi bat buruaski izatetik mendekotasuna izatera igarotzen den prozesua aztertuko dute Behargintzan. Amaitzeko, ikastaroek antsietatea kontrolatzeko baliabideak eskainiko dituzte. Informazio gehiago jasotzeko: zaindu@durango-udala.net. ■ J.D.

MAÑARIA

Behargin bat urrira arte, mantenimendu zereginetarako

Joan zen urteko maiatzean Durangaldeko Amankomunazgoagaz elkarlanean udalean jarduteko sortu zituzten bi lanpostuetako langileetako batek jarraitu egingo du urrira arte beharrean; lanari otsailean ekin zion langileak uztailaren bete du sei hilabeteko kontratua.

Otsailetik uztailera arte jardun du langileetako batek, eta urrira arteko kontratua dauka bigarrenak

Udalan zabaldu zuten lan postuak hamar lagunek eman zuten izena maiatzean, eta punturik gehien jaso zuten mañariar gazte biak izan ziren udalak sei hilabeteko kontratatu zituenak. Besteak beste, auzoetako bideak garbitu, herriko parkeak eta ekipamenduak zaindu, eta herriko altzariteria garbitu eta margotzen jardun dute.

Amankomunazgoak, Bizkaiako Aldundiak eta eskualdeko udalek 50 lanpostu sortzeko planean, langile bi egokitu zitzaizkion Mañariako Udalarari. ■ I.E.

Auzo-bideak garbitu, parkeak zein ekipamenduak zaindu eta altzariteria margotzen jardun dute beharginak

DURANGO

Udal Ludotekan izena emateko aukera irailean

Datorren urrian ekingo diote denboraldiari Durangoko Ludotekan. 3 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzendutako ludoteka talde bitan banatuko dute: 3 eta 6 urte bitarteko taldea, eta 7 eta 11 urte bitarteko taldea. Gainera, urtean zehar hiru aldi bereizten dituzte. Lehenengoa urritik urtarrilera artekoa izango da, bigarrena otsailatik maiatzera, eta hirugarrena ekainean zehar. Lehenengo bi aldietan matrikula egin behar da, baina ekainean libre da sarrera.

Lehenengo aldirako izen-ematea irailaren 20tik 24ra izango da, Udal Ludotekan, 17:00etatik 20:00etara

Bestalde, larunbatetan eta igandeetan edozeinek izango du aukera ludoteka erabiltzeko; lokalaren edukiera bete arte, betiere. Heldu ahala sartuko dira umeak, eta pertsona nagusi bategaz edo arduradun bategaz etorri behar dute.

Lehenengo bi aldietan parte hartu gura dutenentzako izen-ematea irailaren 20tik 24ra eta urtarrilaren 17tik 21era izango da Udal Ludotekan bertan, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. ■ J.D.



Kartelak sokamuturrari ere egiten dio erreferentzia.

Xabier Leginaren kartelak iragarriko ditu Sanfaustoak

Artekalen barrena Santa Anako arkua ageri den kartel koloretsua osatu du Legina zornotzarrak

Guztira, 23 kartel aurkeztu dituzte lehiaketara. Epaimahaiak bost aukeratu eta webgunean ipini zituen, herriarrei bozka emateko aukera eman. Aste bian emandako 7.820 botoetatik Xabier Leginarenak jaso zituen gehien. Zornotzarrak kartel bi aurkeztu zituen; bestea ere finalerako aukeratu zuten, eta hirugarren bozkatuena izan zen. 1996an ere bere kartel batek iragarri zituen Sanfaustoak.

Aurten lanak aurkezteko epea aurreratu dutenez, horretaz azken unean ohartu eta "aurreko eguneko gau osoa eman nuen buruan dagoeneko banerabilen ideia osatzen", azaldu du. Jaiak iragartzen dituen kartel bat "lehen begiratuan ikusi behar dela" deritzo, "beste kartelen ondoan ipinita ere arreta deitu behar du". Horregatik, "kartel koloretsua eta mezu garbia duena egiten saiatu naiz".

Kartelean Santa Anako arkua ageri da, Artekaletik ikusita. Klean, han hemenka, bigantxari iheska dabiltzan lagunak age-

ri dira, sokamuturrari erreferentzia eginez. "Iazko jaietan, eguna argitu aurretikoan, kartelak islatzen duen inguruan segituen sokamuturra, eta jende askok parte hartu zuen". Horrela, aseguruak eta segurtasun neurriak geroago eta lotuagoak diren sasoi honetan "neure babesaren eman gura nion ekimenari".

Herritarren parte-hartzea

Kartel irabazlea aukeratzeko Internet bidezko herritarren bozka ez zaio sistema egokia iruditzen: "Sistema horrekin duela funtzionatzen uste dut, sarritan, gehiago dira lagunak lagunak kartelei emandako bozkek. Nik epaimahai profesional baten esku utziko nuke. Ezerez da sekula denengustuko, baina bide egokiagoa dela iruditzen zait". ■ J.D.

Arreta erakartzen duen kartela egiten saiatu da, mezu labur eta garbikoa

DANTZALDI IBILTARIA:

aiko bbk dantza ergonomikoa erraza betikoa slowdance euskaraz guztiontzat ludikoa atsegina argia lurrian mailakatua erritmoa mugimendua musika naturala oinez tradiziozkoa bertokoa pasodoblea balsa txotis polka jota jauziak mazurka porrusalda foxa ingurutxo tangoa sokadantza berrizen durangon elorrion erandion galdakaon gernikan lemoizen sopelan zaratamon zarautzen

IKASTAROETARAKO AURKEZPEN TAILERRAK

Ikastaroetan izena eman aurretik ezagutu gaitzazu egingo ditugun aurkezpen tailerretan, saio bakar batean. 19:00etatik 21:00etara, doan, konpromisorik gabe eta izena eman barik.

LEMOIZ, Armitzako frontoian	Irailak 10
ERANDIO, merkatu zaharrean	Irailak 13
DURANGO, Plateruenan	Irailak 14
SOPELA, Urko polikiroldegian	Irailak 15
GALDAKAO, Urretako eskolatan	Irailak 20
GERNIKA, (zenazteko)	Irailak 23
ZARATAMO, eskola zaharretan	Irailak 24
BERRIZ, Iremiñeren lokaletan	Irailak 27
ELORRIO, Arriola antzokian	Irailak 28

IKASTAROAK

2010eko urritik 2011ko ekainera. Astero ordu bete 1'erdiko eskolak. 100 euro ikasturte osoa.

ERANDIO	Astelehenetan
GALDAKAO	Astelehenetan
DURANGO	Asteazkenetan
SOPELA	Asteazkenetan
GERNIKA	Ostegunetan
ZARATAMO	Ostiralean

Hasiara ikastaroak 18:30-20:00
Jarraipen ikastaroak 20:00-21:30

ZARAUTZ	Astearteetan
Hasiara ikastaroa 19:00-20:30	

Informazio gehiago eta ikastaroetan izena emateko:
www.aikotaldea.com
edo **646336147** telefonon.

ELORRIO

Sortzez Garbiaren erretaula eraberritu eta hango argindar sistema aldatu dute

Otsailean erretaulako zati batzuk jausi ziren, eta abuzturako amaitu zituzten berriztatzeko lanak

Sortzez Garbiaren basilika-ren erretaula aldazioz estalita egon da hile askoan. Orain, eraberritzeko lanak amaituta, Bizkaiko Aldundiak ondare legez izendatuta daukan erretaulak sasoi bateko distira berreskuratu du berriro. Ereberritze lanak egiteko, udaletik eta aldunditik diru-laguntzak jaso dituzte.

Martxoan, erretaula babes-teko aldamioa ipini ondoren, besteak beste, Bizkaiko Aldundiko

Erretaulako lanak Equipo 7 izeneko enpresak gauzatu ditu eta argiteria moldatzekoak, berri, Eliseo-Usabel enpresak

ordezkariak etorri ziren erretaula ikuskatzera. Azterketaren ondoren, egoera "oso txarrean" zegoela esan zuten, gune batzuetan erretaulak behera egin zuelako. Horrez gain, erretaulan zeuden argiteriaren kable-sarea handik kendu behar zela erabaki zuten, "sutea eragin zezaketelako".

56.000 euroko proiektua

Erretaula eraberritzeko lanak maiatzean hasi zituen Equipo 7 izeneko enpresak; proiektu hori gauzatzeko 56.000 euroko kostua izan du. Hainbat aurrekontu aztertu ondoren, argiteria moldatzeko lanak Eliseo-Usabel enpresaren kargu utzi zituzten, eta 5.000 bat euro balio izan dute.



Uztailaren amaieran amaitu zituzten erretaula finkatu eta eraberritzeko lanak.

Ofizialki uztailaren 23an amaitu zituzten erretaula eraberritzeko lanak, eta irailean zehar berriro bueltatzeko konpromisoa hartu zuten, konponketa txikiren baten beharra ikusten bazen hura

Erretaulako lanek 56.000 euroko aurrekontua izan dute, eta argiteriarenak 5.000koa

amaitzeko. Martin Aranbarri basilikako abadearen esanetan, oraindik "argiteriaren inguruko xehetasun batzuk amaitzea falta da, baina beste guztia amaituta dago, eta oso dotore geratu da". ■ J.D.



Jende asko batu zen domekan ospatu zuten azokan. K.Aginako

Gazte Eguna eta karrozen jaitsiera jailetako azken txanpan

Eguenean Zornotzan abiatu zuten Durangaldeko Gazte Martxa bihar helduko da Elorriora

Eguenean Zornotzan hasi zuten Durangaldeko Gazte Martxa, eta Durangon zein Berrizen hainbat ekitaldi gauzatu ondoren, bihar Elorrioren amaituko dute Gazte Egunagaz bat eginez. Hain zuzen ere, normalean Gazte Eguna eguean antolatzen da, baina aurten domekara aldatu dute Gazte Martxagaz bat egin dezan.

Bihar, jende asko batu ohi duen Sukalki Eguna ere ospatuko dute Aldatzekuan

Ferixa Nausikoen azkeneko asteburuan beste hainbat ekitaldi ere aurreikusten ditu jai egitarauak. Bihar, esaterako, herritarren aldetik parte-hartze zabala izan ohi duen Sukalki Eguna ospatuko dute Aldatzekuan. Arratsaldean, 19:00etan hasita, kantaldi ibiltarian irtengo dira Tanger tabernatik, Alkartu elkartearen eta Urarka kalean zehar, elizpean amaitzeko.

Karrozen jaitsiera

Aurten lehenengoz antolatu duten karrozen jaitsierak ere emango du zeresana. Iaz hainbat karroza ikusialhar izan ziren kaleetan, eta aurten herritarrek animatu eta ekimen ofizial moduan antolatzea erabaki dute. Gauean, 22:30etik aurrera, Kalerik kale eta Pandemia kale animazioak, eta Arkada Social eta Des-kontrol taldeen kontzertuak egongo dira.

Domekan, 18:30ean, Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Onintza Enbeita bertso-tan ariko dira plazan. ■ J.D.

Domeka arratsaldean Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Amets Arzallus eta Onintza Enbeita bertsolariek saioa egingo dute

MALLABIA

Maniobra militarrek salatu ditu Mallabiko Udalak

Soldaduak Mallabian egiten dabil-tzan maniobra militarrek salatu ditu Aitor Loiola alkateak. "Aspertuta gaude, urtero-urtero, armatutako militarrek gure herrian ikustez".

Mallabiko eskola inguruan eta Mallegoi auzoan ikusi dituzte asteon soldaduak entrenamenduak egiten

Eskola inguruan eta Mallegoi auzoan militarrek entrenamenduak egiten ikusi dituztela asteon jakitera eman du Mallabiko alkateak.

Loiolaren berbetan, "heliokopteroan lurrazteak beste urte batzuetako maniobretan inoiz egin dituzte". Inoiz herrian bertan ere izan direla gaineratu du.

"Ez dugu ondo ikusten horrelako indar erakustaldirik; soberan daude. Kezkatuta gaude uste-kabeaz azaltzen direlako eta inoiz ez dutelako ezer jakinarazten, horrela ezinezona sortuz herritarren artean", gaineratu du Loiola alkateak. ■ J.G.

Aitor Loiola: "Aspertuta gaude armatutako militarrek Mallabiko herrian ikustez urtero-urtero"

A. Urreta

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behe
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Durangaldean labur

Fiskaltzak 83 urteko kartzela zigorra eskatu du Palaciosentzat

Auzitegi Nazionaleko fiskaltzak 83 urteko kartzela zigor eskaera mantendu du Gorka Palacios iurretarrarentzat. 2001ean ETak Madrilen egindako atentatu batean parte hartu izana leporatzen diote. Fiskaltza-
ren txostenean jasotzen denez, Palaciosen ez zuen atentatuan zuzenean parte hartu, baina atentatua egiteko informazioa batzen ibili izana leporatzen diote.

Paperezko hegazkinik handienaren bila Maristetan, sormena sustatuz

Aurten ere Maristak Learning System-aren (MLS) ardatz diren talde lana eta sormena bultzatu guran arazo bati aurre egin behar izan diote Maristetako ikasleek euren lehenengo egunean. Ar-
zooa zein izango eta, paperezko hegazkinik handiena diseinatu eta egitea. Gaur egun, enpresek beharginak kontratatzeke orduan sormena, berrikuntzarako ahalmena eta talde lanalako dohainak gero-
go eta gehiago hartzen dituzte kontuan, eta Maristak ikastetxeak eremu horiek landu gura izan ditu ekimen horrekin.



Astialdiko begirale ikastaroa irailean

Durangaldeko Amankomunaz-
goak astialdiko begirale ikasta-
roa antolatu du, eta Urtxintxa
eskolak emango du. Honako hel-
bidean eman daiteke izena: [euskera.mdurango@bizkaia.org](mailto:eus-
kera.mdurango@bizkaia.org).
Izena emateko azkeneko eguna
irailaren 30a izango da.

ZALDIBAR

Euskadiko western txapela jokoan, hainbat modalitatetan

Zaldi gaineko ikuskizuna asteburuan, Euskal Western elkarteak eratuta

Mendebaldeko filmetako itxurahartuko du bihar eta etzi Zaldibarrek. Izan ere, Euskal Western elkarteak antolatu-
tuta, Euskadiko Western Estatutze finala jokatu da, proba ugaritan banatuta.

Zapatuan goizetik hasiko da lehia. 10:00etan, Cattle Penning ariketa izango dute: zaldunak abel-
buru bat ikuilura eroan beharko du, ahal duenik eta denbora labur-
rean. 12:30ean, Barrel Racin-
ga eta Poole Bendinga izango dituzte. Lehenengoak abiadura eta bizitasuna konbinatzea eska-
tzen du; bigarrenak zaldiaren tre-
bezia neurtuko du slaloma eginez. Arratsaldeko 17:00etan, Team Pen-
ning probaren lehenengo txandan murgilduko dira. Taldeko lanean, ganaduaren artetik hiru abelbu-
ru sartu beharko dituzte ikuiluan. Egunari amaitzeko, afarian eta ondorengo country kontzertuan elkartuko dira lehiakide eta zaleak.

Zapatuan, afarian eta ondorengo country kontzertuan elkartuko dira lehiakideak eta zaleak

Beste zita garrantzitsu bat Katalunia eta Euskadiko selekzioen arteko Federazio Koparen finala izango da

Katalunia-Euskadi

Domekan Team Penningaren bigarren txanda jokatu dute, goizeko 10:00etatik aurrera. Horren atzetik, 13:00etan, beste zita garrantzitsu bat: Katalunia eta Euskadiren arteko Federazio Koparen finala. Zaldibarren erabakiko da zein selekzioak janzen duen txapela. Jardunaldia sari banaketa eta banderen desfileagaz itxiko dute, eguerdiko 14:30ean.

Bestalde, aipatzekoa da bari-
kuan Clinic berezi bat eskainiko duela Juan Arakistainek, teknika hobetzeko gomendio eta irizpi-
deak emanez. ■ M.O.



Iaz antolatu zuten lehenengoz zaldi gaineko ikuskizuna Zaldibarren. J.Fernandez

Zapatublai ekimenean izena emateko aukera

Zapatuetan, hamabostean behin, euskarazko olgeta proposatzen dute ekimenean

Urriaren 9an hasi eta ekainaren 18ra arte iraungo du Zapatublai, eta hamabostean behingo maiz-
tasunagaz garatuko da. Izena eman gura duten ume eta gazte-
txoek irailaren 16a dute azkene-
ko eguna.

Udaletik adierazi dutenez, egitasmoaren helburuak hona-
koak dira: euskararen erabilera segurtatzea eta indartzea, umea lagunarteko giro jatorrean hezi-
tzea, natura errespetatzen ikastea, ingurua ezagutzea eta, zelan ez, ondo pasatzea ere bai.

Hiru taldetan sailkatuko dituzte haurrak: Haur Hezkuntza (2005, 2006 eta 2007an jaioak), LH 1. zikloa (2002, 2003 eta 2004an jaioak) eta LH2. zikloa (1999, 2000 eta 2001ean jaioak). Kopurua mugatua izango da kasu guztie-

tan; umeak 10 laguneko taldeetan banatuko dira, adinaren arabera.

Antolakuntza

Koordinatzaile eta begiraleek osatu dute Zapatublaiko lan-taldea. Unibertsitatean zein umeen mun-
duan esperientzia handiko gazte euskaldunek jardungo dute zeregin horretan. Udal arduradunek jakinarazi dutenez, 15 euroko da prezioa, eta udalaren kontu-zen-
bakian sartu behar da dirua. Ordai-
nagiria Udaletxean aurkeztu behar da, eskaera orriagaz. ■ M.O.

Parte hartu gura dutenek irailaren 16a dute izena emateko azken eguna

OTXANDIO

Andikona plazan urbanizazio lanen lehen fasea hastear

Datorren astean hasiko dituzte; ezer baino lehenago ikerketa arkeologikoa egin behar dute

Uztailan Ruiz de Infante enpre-
sari esleitu zizkion Udalak Andikona plazako lehenengo faseko urbanizazio lanak 130.000 euroan. Lanak datorren astean hasita itxaroten dute.

Hala ere, ezer baino lehenago, ikerketa arkeologikoa egingo dute. Izan ere, plazaren azpialdean herriko errota batera zihoan ubide bat dago, eta haren balioa jaso gura dute. Txostena hilabete inguruan osatu eta Bizkaiko Foru Aldundira bidaliko dute. Han ondorioak aztertu eta urbanizazio lanei ekin aurretik Bizkaiko

Aldundiaren oniritzia jaso beharko dute: "Azterketa arkeologikoa-
ren helburua, batez ere, ubidea-
ren balioaren gaineko informazio dokumentatua izatea da", dio Aritz Otxandiano alkateak.

Dena dela, ikerketak ez dio plaza osoari eragingo. Eragiten ez dion eremuan datorren astean bertan hasiko dira urbanizazio lanak egiten. ■ J.D.

Udalak 130.000 eurotan esleitu zizkion lanak Ruiz de Infante enpresari

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

Hemen agertu gura baduzu
deitu!

94 621 79 02


"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfno. 94 681 43 85

BERBAZ>

“Orain hartutako neurriak duela sei urte hartuta, lankidea ez zen hilda egongo”

Urteetan jardun du lan istripuan hildako emakumearen ondoan beharrean Unzueta LABeko delegatuak



Kepa Aginako

Meltxor Unzueta•

- Abadiñarra, 56 urte
- EKTko behargina eta LAB sindikatuko delegatua

Lur jota ekin diote lanari lurretako Euskal Kataforesis (EKT) enpresan. Joan zen barikuan 39 urteko lankide bat lan istripuan hil zen, edukiontzi batzuek harrapatuta. LABek sarritan salatu du enpresa honetako lan erritmoa. Meltxor Unzueta sindikatu horretako delegatuak argi dauka heriotzaren arrazoa zein izan den.

LABek abenduan zergatik jarri zuen salaketa Lan Ikuskaritzan? Aurreko urtean bost lagun kaleratu zituzten, eta lagun gutxiagogaz lan berdina egiten gabe. Lan erritmo horren aurrean Lan Ikuskaritzan zer baldintzatan gabeztan lanean ikusi dezaten, salaketa jarri genuen.

Lan Ikuskaritzak zer erantzun zuen?

Ez dagoenez egite edo ez egite bat, ez dagoela inkunplimendurik. Salatutako gaien ez da sartzen. Lan erritmoei ez die aipamenik egiten. Prebentziorako komite bat dago,

LAB, ELA eta UGTekin. Beste bi sindikatu etako ordezkariak ez dutenez salaketa jarri, bertan behera utzi du.

“Kaleratzeak, baliaezintasunak eta heriotza dira gertatutakoaren laburpena”

Enpresaren aurrean ere kexatu izan zarete?

Orain sei urte erreleboko langileen sinadurak jasota joan nintzen zuzendaritzara, pertsona bat gutxiago gurelako erreleboan. Begiratuko zutela esaten zuten, baina ardura batak besteari bota zion. Enpresa Komiteko batzarretan salatu nuen egoera. Gainera, beteranook limitera gabeztan; esperientzia dugu katean, eta berriak datozenean zaindu egin behar dugu euren lana.

Aurretik ere, gomendio batzuk egin zituen Osalanek.

Osalanek 2006an gomendio batzuk jakitera eman zituen. Laneko istripuen indizea altua zela adierazi zuen, eta gaixotasun profesionalena ere bai. Enpresak neurri batzuk hartu behar zituela esan zuen.

Zelan gertatu zen istripua?

Istripua prekarietateagatik gertatu da. Femistek kutxa bat eraman behar dute segurtasun neurriengatik, baina lan handia dago eta gehiago hartu behar dituzte. Presaka ibiltzen dira, aurrera eta atzera, lana betetzeko. Horretan zebiltzala, beste aldera jauzi ziren kutxak eta langilea harrapatu zuen.

“Lan Ikuskaritzak ez du salatutako lan erritmoen inguruan ezer esaten”

Gertatutakoaren zer irakurketa egiten duzu?

Erantzukizunak topatu beharrean konplizitateak daude hemen. Lan Ikuskaritza, enpresaren zuzendaritza kasurik ez egitearren, langile batzuk insumisio edo sumisioagatik. Kaleratzeak, baliaezintasunak eta heriotza dira laburpena.

Egoera aldatu egin da istripua eta gero?

Behargin bat gehiago jarri dute orain katean, baina hori bagenuen orain urte batzuk. Lehenago piezak eskasagoak ziren, baina orain lan erritmoa handiagoa da. Pertsona hori orain sei urte jarri balute, lankidea ez zen hilda egongo. Orain femista bi daude, baina lehenago beste langile bat zegoen. Enpresakoek susto handia hartu dute, baina guk handiagoa.

Kaleratzeak egon ziren orain bi urte enpresan.

Bai, 2008an 54 langile genbiltzan lanean. Lan-erregulazio espedienteak jarri gura zuten. Aurreko egunean 9

“Erregulazio espedienteak atzera bota zuten enpresak irabazi handiak zituela ikusita”

langile kalera bota zituzten. Atoan konturatu nintzen zergatik. Ratio ekonomiko eta finantzarioak aurkeztu behar dira 50 langiletik gorako enpresetan EREa jartzeko. Datu horiek aurkeztu behar izan zituzten, eta EREa atzera bota zuten. Enpresak irabazi handiak zituen. Kaleratzeak negoziatu zituzten enpresa ekonomikoki oso ondo zegoela ikusi zutelako, eta 20 egun beharrean 45 egun kobratu zituzten lan egindako urte bakoitzarengatik. Guk ez dugu kaleratzerik negoziatzen.

Pertsonalki, zelan bizi du zuek lan-gileok egoera?

Langileak jo eta haustuta gaude. Femista txarto pasatzen dabil, eta gogoan izan nahiko nuke. Banekien neska asko estimatzen gurelako, baina ez nekien hainbeste maite gurenik. ■ J.G.

IRITZIA >

Gutunak @

Gure herentzia: Duintasuna

Azken aste honetan emozioz betetako egunak bizi izan ditugu 'Barreñatarrok'; batetik, su etenaren notiziak pozez eta itxaropenez bete gintuen, eta, bestetik, "Tiopako"-ren heriotzak bihotza estutu digu.

Batek baino gehiagok esango du: eta zer zerikusi daukate batek eta besteak?

Ba, oso-oso.

Gure familiaren ibilbidea eta bizipenak erabat lotuta egon direlako Euskal Herriaren historiarekin eta honekiko konpromisoarekin

Atzera jotzen dut, eta han ikusten ditut aita eta tioak fundizioko hautsaz beteta lan eta lan; gogoratzen ditut mendian, koadrilan pasatzen genituen igandeak; akordatzeko naiz gerra garaiko kontakizunak presente zeudela: tio Nikolas; gogoratzen dut ama eta aita manifestazioetara joaten zirela; gogoratzen dut estatu kolpea izan zenean nire inguruan igartzen nuen beldurra; gogoratzen ditut 'Marcha de la libertad'-eko argazkiak; gogoratzen ditut poliziak gure etxetan, torturaren markak, kartzeletako bidaiak, presoak beti gogoan.....

Onartu behar dut batzuetan Barreña izatea zaila egin zaidala (zaigula), baina ozenki esan behar dut harro nagoela (gaudela), erakutsi eta erakusten diguten duintasuna eta askatasun egarriatik.

Gerra zibila galdu arren, borrokan jarraitzea erabaki zenuen... Orain guri tokatzen zaigu... Lepoan hartu eta segi aurrera!

Joan zareten guztioi tio Nikolas, aitite, amama, tio Julian, tio Antonio, tio Pako, agur eta ohore.

Bizirik zaudetenoi animo eta aurrera!

Maite zaituztegu

Maite Barreña - Durango

Klik batean @



Kotxeen zarata

Argazkian Olazar kaleko bi estolda ikusten dira; bata biribila da, eta bestea, kale zabalera hartzen duena. Auzotarrek salatu dutenez, oso neketsua izaten da kotxeak pasatzen direnean egiten duten zarata entzutea, batez ere, gauetan; gehiago ume txikiak lotan dituztenean. Gainera, orain, sarbide berria delata, kotxe gehiago igarotzen da, eta batzuk oso azkar, gainera. Duela urtebete zerbait egingo zuela esan zien udalak, baina oraindik ez dute ezer egin. Espero dute laster konponduko dutela, eta solte dauden estolda hauen zarata amaituko dela.

Sei hankako mahaia



Sergio Murillo
EAJ

Zor zaharra, zor txarra

Hasi dogu ikasturte barria eta ohiko martxari ekin deusagu. Ohikoa... zoritxarrez, zordunak zorretan jarraitzen dabelako!

Madrilen zordun dira. 1979an onartu eta erreferendumean baieztaututako Lege Organikoa den Gernikako Estatutua oraindik bete barik daukagu, eta zordunari, Estatuari, urtero-urtero joan behar gaiakoz zorra ordaintzeko eskatzera. Iaz lan politika aktiboen zorra bueltatzeko asmoz ziren: ordainduko ete dabe? Aurten zorraren beste zati bat berreskuratzeko lan egingo dabe EAJko Madrilgo gor-teetako ordezkariak; ez izan zalantzarik.

ETAk zorretan jarraitzen dauela ezin ukatu, baina beharbada zorra kitatzeko asmoa jakinarazten dabil

Aurreko asteburuan gure herri honen zordunik handienak bere zor historikoa kitatzeko asmoa zeukala pentsatzen hasita gengozenean, gure ametsetik atara gaitu errealitatearen kru-deltasunak; ETAk ez dau herri honekin daukan zorra kitatu, ez oraindik, behintzat; ez guztiz, sikiera. Zordunarekin baketan izango ginelakoan, benetako bakea zor!

Aldiz, zordunak aspaldiko zor baten zatitxo bat ordaintzeari ekiten deusanean, zorretan jarraitzen dauela ezin ukatu, bai, baina beharbada zorra kitatzeko asmoa daukala jakinarazten dabil... Ikusi nahi dodana eta benetan ikusten dodana nahasten dabilzen susmoa daukat.

Holangoetan, gure asaba zaharren hizkuntza jakintsuari so, honegaz egiten dot topo: *zor zaharra, zor txarra!* Nahiago neuke, barriz, beste honi ekingo bageunskio: *gogoak malkarrak zelaitzen ditu.*

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten ize-
nean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz
zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko irailaren 10a - 9. urtea - 385 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Ana Dominguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

Gremioen gida



Iturgintza



Arriandi, 16 - behe, 3. atea
Sakelakoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 58
lurreta

Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa
Baimendun
Instalazioak

Elektronika

URBASA Elektronikak

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA -
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic

Telebés
Instalazioak
Ofiziala

Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behe
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Eraikuntza

arlax
ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zurezko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B
DURANGO

Sakelakoa: 615 77 91 70
605 77 03 57



gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Lorazaintza



Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik
Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Arotzeria

EGUIA S.L.

AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com



Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Garbiketak

AZKARGI GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

Informatika



Information Technology S.L.

ZURE SISTEMA INFORMATIKOA
EZ DA UMEEN JOLASA

www.elaiat.es • e-mail: info@elaiat.es
Tel.: 94 640 98 98

- TIC aholkularitza
- Ekipamendu hornikuntza (kontsumigarriak)
- Konfigurazioa eta instalazioa
- Mantenimendua
- Formazioa
- LOPD/LSSI adaptazioa



GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta auzoa, Ambe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 98 24

KULTURA[>]

ANTZERKIA > PROGRAMAZIOA

Hamalau kultur emanaldi biltzen dituen programazioaren aurkezpenera deitu dituzte hedabideak Durangoko San Agustin antzokira Arantza Arrazola programatzaileak eta Mari Jose Balier zinegotziak, asteon. Besteak beste, prentsaurrekoan azpimarratu dutenez, umeei zuzendutako bost ikuskizun izango dira datozen lau hileetan San Agustinen aukeran.

Aritza Rodriguez zaldibartarra aktore duen *Mondo Flurss* umeentzako antzezlanaren emaldirako zabalduko dituzte ikasturte berrian ateak San Agustin kultur gunean: irailaren 19an, 30 minutuko emanaldi bi eskainiko ditu Kolore Bitxia Teatroa taldeak, bi eta bost urteko umeei zuzenduta: zabor poltsekin eta material birziklatuagaz jolasten dute antzezlanean. Umeen neurrira egindako lana da *Mondo Flurss*, txiki-ekienek ere arte eszenikoak maitatzen ikasi dezaten sortutakoa.

Irailaren 26an, arratsalde oraingoan ere, umeak izango dira antzokian protagonista: Jokin Oregik zuzendu duen *Robot maitea* lanaren emanaldia izango da egun horretan, bost urtetik gorakoentzat. Sentimenduei eta emozioei buruzko antzezlanak da Marie Jongh taldearen *Robot maitea*.

Estreinaldi bi

Umeentzako ikuskizun biren estreinaldiak hartuko ditu, bestalde, urteko azken lauhilekoan San Agustin kultur gunearen eszenatokiak: Gorakada taldearen azken lana, *Erraldoitxo* deiturikoa, abenduaren 19an egingo dute San Agustinen. Iñake Irastorza eta Aritza Rodriguez dira Agurtzane Intxaurragak zuzentzen duen *Erraldoitxo* honetako antzezleak.

Ateak zabalik eta programazioa gertu urteko azken hileetarako

'Mondo Flurss' izeneko umeentzako antzezlanagaz zabalduko dituzte, irailaren 19an, ikasturte berrirako ateak Durangoko San Agustinen. Martitzenean aurkeztu dituzte Arantza Arrazola kudeatzaileak eta Mari Jose Balier zinegotziak datozen lau hilabeteetan Durangoko antzokian oholtzaratuko dituzten hamalau ikuskizunak; horietako bost umeei zuzendurikoak dira



Etxeko txiki-ekienek ere arte eszenikoak gozatzen ikasi dezaten

Urriaren 24an estreinatuko du Logela Multimedia talde elorriarrak, bestalde, umeentzako sortu duten ikuskizun berria: Sonia Villamor eta Ander Garaizabal elorriarraren gidoia dauka *Anaki* "hiru dimentsiotako" antzezlanak.

Urriaren 24an aurkeztuko du Logela Multimedia *'Anaki'*

Durangoko jaien aurretik, irailaren eta urriaren, Durangoko San Agustinen aukeran ditugun ikuskizunak azpimarratu ditu Arrazola programatzaileak martitzenean: urriaren 3an ikusgai izango dugun eta aktore espainiar oso ezagunak biltzen dituen Mutis Producciones talde madrildarraren *Tres* antzezlan nabarmendu dute, batetik; "ikuslegoari barre eragitea helburu duen antzezlan komertziala da, jende andana erakartzen duena antzokietara", Arrazolaren berbetan. Kiti Manver, Nuria González, Aurora Sánchez, eta Octavio Pujades dira obrako antzezleak.

Hamalau emanaldi izango dira abendura arte San Agustinen

Aurretik, urteko beste sasoi batzuetan ere antzerki zale zein profesionalen zuzenduriko antzezpenagaz lotutako hainbat gairi buruzko ikastaroak eskaini izan ditu Ganso&Cia antzerki talde durangarrak Durangoko San Agustinen: aldameneko argazkiko antzezlanen zuzendaritzari buruzko tailerra, esate baterako. Urteko azken hilabeteotan, Ganso&Cia taldearen espezialitate nagusienetakoa den clown teknikara gertaturatuko dituzte parte-hartzaileak ikastaroan.

Azarorako antolatutako *Clown ikastaroa hemen eta orain* emateko, Lila Monti antzele argentinarra gonbidatu du Ganso&Cia taldeak; Monti antzele argentinarrak gidatuko ditu San Agustinen egingo dituzten saioak. Azaroaren 8tik 11ra, 10:00etatik 14:00etara, izango dira Durangoko San Agustin antzokian clown teknikaren gaineko saioak.

Ganso&Cia taldeak antolatu duen clown ikastaroa eta bestelako hainbat hitzordu

Durangoko Udaleko Gizarte Sailak eta herriko elkarteek proposatu eta antolatuta, San Agustinen urtero burutzen diren ekitaldietako bat da ahotan dabilgun clown ikastaroa, baina bestelako ekitaldiak ere izango dira datozen lau hilabeteetan San Agustinen: hasteko, Palentzia, Castilla eta Leongo zentroek antolatuta, musika tradizionalaren II. Jaialdia osatuko dute irailaren 11n, 20:00etan.

Horrez gainera, Txelu Angoitia argazkilari durangarraren *Malaire* erakusketa urrian, flamenko emanaldia azaroan, eta beste hainbat kultur emanaldi hartuko ditu Durangoko San Agustin kultur guneak.



Urte amaieran ere programazio anitza, kalitatezkoa eta zabala eskaintzeko helburuz atondu duten egitarauan magiak, dantzak eta musikak ere izango du San Agustinen lekuri: Mag Lari ilusionista kataluniarra urriaren 11n izango dugu Durangon; Yllana konpainiaren *Hermanos de baile*, musika eta dantza ikuskizuna, berriz, urriaren 23an. ■ I.E.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Bost euskal talderen doinuak gaur eta bihar Plateruenean

Bertan Bera eta Lain, gaur, eta Kudai, Hira eta Aiumeen Basoa taldeak zuzenean, bihar

J oan zen barikuan DJek ekarritako doinu elektronikoek zabaldu bazuten Durangoko Platerueneko ikasturte berria, iraileko bigarren asteburu honetan bestelako erritmoak zuzenean entzuteko aukera da Plateruena antzokian eskaintzen digutena. Bost euskal talde gonbidatu dituzte asteburu honetan bertara. Bost euroko sarrera izango dute kontzertu gau biek, eta askotariko erritmo eta doinuak izango dira entzungai.

Talde oso gazteak dira bate-tik, gaur, irailaren 10ean kontzertua eskainiko duten Gernikako Bertan Bera punk-rock laukotea eta Billabonako Lain.

Talde oso gazteak dira
gaur arituko diren
Bertan Bera eta Lain

Bestelako doinuak, esperientzia luzeagoko hiru talde gipuzkoarrek sortutakoak, dira zapatu gaue-rako, irailaren 11 rako, Platerueneko egitarauak jaso dituenak. Euskal Herrian metala jorratzen urte luzez diharduten hiru talde dira bihar-ko kartela osatzen dutenak: Kudai, Hira eta Aiumeen Basoa.

Oinarri elektronikoen gainean metal doinuak sortzen dituzte Kudai taldeko gipuzkoarrek, eta iaz kaleratutako *Shah Mat* hirugarren



diskoan jasotako kantak eskainiko dituzte Durangon, bihar.

Zapatu gaueko hirugarren taldea, 1998tik metal estiloan diharduten Hira taldea da. Metal indartsua ekarriko dute Platerueneko oholtzara orain urte batzuk Euskadi Gazteako maketa lehiaketako entzuleen saria irabazi zuten musikari gipuzkoarrek.

Iraganeko bide malkartsutik izeneko diskoa kaleratu duten Aiumeen Basoa taldeko zazpi mutrikuek, bestalde, egiten duten black metal eta folk doinuen uztar-

keta erakutsiko dute antzokian, bihar. Taldekideen urte luzetako lanaren emaitza da disko berria. Gitarra, bateria, bibolina, akordeoia eta adarra baliatuta elkartzen dituzte taldean metal gogorra eta musika tradizionala. ■ I.E.

Metal gogorra eta folk
doinuak elkartzen ditu
Aiumeen Basoa taldeak

GEURE DURANGALDEA

Jose Julian Bakedano
Zinegilea



Diego Rivera eta Lekeitio

Ilargi aurpegia eta logure begiak zituen gaztea, 1907ko udan ailegatu zen Lekeitiora. 1,85 metro altu zen, eta 100 kilo pisatzen zuen. Hogei urte inguru zituen.

Mexikarra zen Diego Rivera. Sentsibiltate apartagaz jaio zen. Denboragaz, lau bider ezkonduko zen, hainbat seme-alaba edukiko zituen ezkontzaz kanpo, egunean 18 orduz egingo zuen lan eta Mexikoko muralistik garrantzitsuenetakoa bilakatuko zen (Tamayo, Orozco eta Siqueiros-egaz).

Alderdi Komunistako kide egin baino lehen, Bizkaiko kostaldean aste batzuk igaro zituen Mexikoko pintorerik handienak. Veracruzeko gobernadorearen diru-laguntzagaz ordaintzen zuen Madrileko tailerreko ikaskideekin eta Eduardo Chicharro irakasleagaz etorri zen. Ia ikusi ere ez zuten egiten, baina: pintzelak poltsikoan eta astoa sorbaldan hartuta, eguneko lehenengo eguzki izpiekinkalera ateratzen zen.

Bere talentua Lekeitioan azaleratu zenerako, urte erdi zera-man artistak Espainian. Bisitarien bistara daude garai hartako hainbat lan: Guanajuato hiriko Diego Rivera Museoan dago *Iglesias de Lekeitio* izeneko koadroa, eta Mexiko hiriburuko Agustin Cristobal galerian dago Beheko eta Tortola kaleen kantoiko eraikina jasotzen duen *La Casona*.

Guanajuatoko Diego Riveraren Museoan ez omen dute "haren lanarekiko interesik agertu duen euskal agintaririk gogoratzin", dio Federico Ramos zuzendariak. Komunikazio falta horren erakusle, eliza agertzen duen koadroaren izenburua irakurtzea baino ez dago: *Lekeitioko katedrala* dio.

Zenbat mihise margotu zituen Lekeitio? Zer gertatu da *En Vasconia* eta *En la parte de Pedro* lanekin? Garaiko *Revista moderna de Mexico* lako argitalpenetan agertutako erreproduzioak bakarrik ezagutzen ditugu. Kabuako itsaslabarrak agertzen dira lehenengoan, eta San Pedrope inguruan eguneko harrapakinak garbitzen diharduen arratzanlea eta bere emaztea agertzen ditu bigarrenak. Lekeitioaren iraganak Diego Riveraren lanetan dirau. Gutzik dakiten arren.

* Isabel Urrutiaren *Un genio en Lekeitio* artikulua (El Correo, 2007/08/05) laburpena

ZINEMA > ESTREINALDIA

Saturrarango kartzelako historiari buruzko 'Izarren argia' Donostian

Frankistek 1938an Saturrarango kartzelan espetxeratu zituzten emakumeei buruzkoa da Durangoko Baleukok produzitu duen eta Donostian estreinatuko duten 'Izarren argia'



Irailaren 17tik 25era Donostian izango den Zinemaldian aurkeztuko dute Baleuko Komunikazioa ekoiztetxeak ekoiztu duen *Izarren argia* filma. Donostiako jaialdiko 'Zuzendari berriak' sailan aurkeztuko dute filma.

Aurretik, besteak beste, *Present Perfect*, *Érase una vez* eta *El Carrito* film laburrak zuzendu dituen Mikel Ruedaren zuzendaritzapean grabatu dute *Izarren argia*. Zuzendari bilbotarraren lehenengo film luzea da datorren astean Donostiako Zinemaldian aurkeztuko dutena.

Victoria izeneko emakumearen istorioa da *Izarren argia* lanak kontatzen duena: Errepublikaren kontra matxinatutako frankistek Saturrarango kartzelan espetxeratu zituzten Victoria izeneko emakumea da protagonista. Errepublikazale baten emazte izatearren, askatasuna kentzeaz gainera, semea ere kendu ziotela Victoria protagonistari kontatzen du

pelikulak, "ama batek duen kutunena". Kartzelaratuen seme-alabak Francoren aldeko familien esku zelan uzten zituzten ere erakusten du filmak.

Barbara Goenaga, Itziar Lazkano, Klara Badiola eta Estibaliz Gabilondo dira *Izarren argia*ko aktore nagusiak. Filmeko fikziozko istorioaren eta protagonista-aren atzean, baina, Gerra Zibileko historiaren errealitate krudeletako bat dago. Horixe da Baleuko ekoiztetxeak produzitu duen filmaren oinarrietako bat: pelikulan kontatzen dena lako egoerak Gerra Zibilean euren azalean bizi izan zituzten emakumeen memoria ikusleei helaraztea. ■ I.E.

Saturrarango kartzelan
egon zirenen historiari
buruzko film luzea da

Baleuko ekoiztetxe
durangarrak produzitu
du 'Izarren argia'

Barbara Goenaga, Itziar
Lazkano, Klara Badiola
eta Estibaliz Gabilondo

MUSIKA> IKASTAROA

Perkusio eta haize musika tresnen ikastaroa eskainiko du Musika Bandak

Irailaren 27an ipiniko du Durangoko Musika Bandak herritarrak taldera gerturatzea helburu duen ikastaroa

Haize eta perkusio instrumentuen ikastaroa eskainiko du Durangoko Musika Bandak irail amaieran. Doakoa eta parte hartu gura luketen guztiei irekia izango da irail-leko musika tailerra; antolatzaileek azpimarratu dutenez, beste instrumenturen bat jotzen dakitenek zein musikagaz lehenengo hartu-eman izango luketenek ere aukera dute Musika Bandaren ikastaroan parte hartzeko.

Tronpeta, tronpa, tronboia, tuba, bonboa, platerak, tinbalak...

Herritar guztiak daude gonbidatuta, beraz, ikastaroaren bitartez instrumentu batez zein Musika Bandagaz harremana abiatzea. Ikastaroaren osteko hurrengo pausu batean, parte-hartzaileak bandako kide bilakatu ahal izatea da tailerraren helburua: herritar-

rrek Musika Banda ezagutzea, eta kide egin daitezen bultzatzea.

Irailaren 27tik aurrera eskainiko dute ikastaroa eta, besteak beste; tronpeta, tronpa, tronboia, bonbardino, tuba, kaxa, bonboa, platerak eta tinbalak... dira ikastaroan esku artean erabiliko dituzten musika instrumentuak.

Izena emateko moduak

Ikastaroan parte hartzeko interesa dutenek, bandaren egoitzan bertan eman ahaliko dute izena: Durangoko Landako kiroldegiko behealdeko bigarren zenbakian dagoen egoitzan. Internet bidez, bestalde, info@bandadurango.net helbidea ipini dute herritar guztientzako aukeran. ■ I.E.

Ikastaroa doakoa da eta herritar guztiek hartu ahal dute parte

ERAKUSKETA> PINTURA

Serigrafia lanak eta idatziak, irailean, Durangoko Museoan

Eusebio Sempere valentziarraren eta Luis Gordillo sevillarraren lanak, irailaren 26ra arte

Luis Gordillo artista sevillarraren eta Eusebio Sempere margolari valentziarraren lanak dira, joan zen zapatutik irailaren 26ra arte, Durangoko Arte eta Historia Museoan bisitagai ditugunak. Serigrafia serie bik, hainbat testu eta Edmond Jabés-en poema batek osatzen dute erakusketa.

1981ean Arte Plastikoen Sari Nazionala jaso zuen Gordillok 1975 eta 1979 urteen artean idatzitako testuak eta bere sei serigrafia-lan batzen ditu Durangoko Museoan dagoen *Alma* nokizoneko bildumak.


Bestalde, Eusebio Sempere artista valentziarraren *Transparencia del tiempo* izeneko bilduma ere ikusgai dugu irailean Durangoko Museoan: Sempere-ren bost serigrafia lan eta Edmond Jabés-en poema bat dira erakusketarako hautatutakoak.

Euren bizitzako ibilbidean, besteak beste, informalismoaren, pop amerikarraren, kubismoaren eta konstruktibismoaren eragina izan duten artista bien lana dugu hile honetan aukeran. ■ I.E.

Ibilbide luzeko artista biren lanak beteko dute Museoan irailean

Gordilloren serigrafia lana eta bere hainbat idatzi daude ikusgai

Eusebio Sempere-ren 'Transparencia del tiempo' bilduma



ANTZERKIA> IKASTAROK

Antzerki eta ipuin-kontalaritza tailerrak eskaintzen ditu Banartek ikasturte berrian

Hirugarren urtea da Abadiñoko Banarte taldeak hainbat ikastaro eskaintzen dituen



Ikasturte berrirako, 2010-2011 ikasturterako, antzerki eta ipuin-kontalaritza tailerren eskaintza aurkeztu du Abadiñoko Banarte antzerki taldeak. Antolatzaileen euren berbetan, arte eszenikoen irakaskuntzan Durangaldean dagoen hutsunea betetzera dator

Antzerki arloan dagoen hutsunea bete gura dute

Banarte antzerki taldeak eskaintzen duena; askotariko iraupen eta gaietaz buruzkoak dira saioak.

Hirugarren urtea da antzerki ikastaroa antolatzen duena Banartek, 2007an elkarre moduan izena eman zutenetik, urtero eskaini dituzte ikastaroak.

Irailaren 30ean abiatuko du antzerki ikastaroa Banartek

Hile honen amaieran, irailaren 30ean, abiatuko dute iraupen luzeko antzerki ikastaroa, eta udaberrian estreinatzeko saioetan prestatuko duten antzezlanaren emanaldiagaz amaituko dute. Eva Guerrero Rico aktore eta irakaslea izango da antzerki tailer honen

arduraduna, eta berak gidatuko ditu saio guztiak. Ikastaroan izena emateko, Interneteko banarte@gmail.com helbidea baliatu dezakete interesdunek.

Udazkenetik udaberrira arteko tailer nagusiaz gainera, ipuin-kontalaritzari buruzkoak eta iraupen laburrakgo ikastaro zehatzagoak ere eskaintzen ditu Abadiñoko Banarte antzerki taldeak. Ikasturte honetan ipiniko dute lehenengoz martxan, adibidez, jakintza-alor anitzeko ikastaroa: irailetik martxora arte, antzerkigintza, ahotsa eta dantza lako disziplinetan jardungo dute parte-hartzaileek. Bakoitzak bere espezialitateari buruz, bost irakaslerekin jardungo dute.

Ikastaro guztiei buruzko informazioa eta izena emateko bideak www.banarte.net helbidean daude baliagarri. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

IRAILAK 10 22:00etan
BERTAN BERA + LAIN
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

IRAILAK 11 22:00etan
KUDAI+HIRA+AIUMEEN BASOA
KONTZERTUA. Sarrera: 5euro.

IRAILAK 18 19:00etan
DANTZALDI IBILTARIA
AIKO TALDEA
ERROMERIA. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

irailaren 19an

DENBORALDI

berria!

San Agustín
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

11.54 661 07 76 Artekale, 14 Durango

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA



Zainduz


FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

OINETAKO KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA

OSASUN ESTETIKA ZENTROA Dra. Aguirre

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;

Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO

tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROLAK >

Supermotoek eta klasikoek bat egingo dute bihar Astolan

V. Motorshow Lehiaketa antolatu dute bihar Astolan; Euskadiko Supermoto Txapelketako lasterketaz gainera, lehenengoz, 70eko hamarkadako moto klasikoek erakustaldia egingo dute



Iaz 5.000 lagun inguru batu zituen Astolako poligonoan antolatutako Asier Martínezen Oroimenezko Motorshowak.

Asier Martínezen Oroimezkeko V. Motorshow jaialdiak milaka motorzale batu ditu zapatuan Astolako poligonoan. Iaz 5.000 lagun inguru batu ziren, eta aurten kopuru horren gainetik ibiltzea itxaroten dute Abadiñoko Supermoto Klubeko kideek, eta egitarau tentagarria prestatu dute. Euskadiko

ketetatik bost Aitor Martínezek irabazi ditu, eta dagoeneko Euskadiko txapelduna da matematikoki. Hala ere, biharkoa da urtean "ilusiorik handiena" eragiten dion lasterketa, eta dena ematera irtengo da. Iaz lesio baten ondorioz txapelketa utzi ondoren, aurten garaipenaren bidetik itzuli da abadiñarra.

Ondoren, Txus Jaiok eta Igor Urienek (15 urte) auto erakustaldiak egingo dituzte. Jaiok Espainiako Rally Txapelketako txapelduna izan da. Urien abadiñarra oraindik gazte mailan ari da, eta oraintxe adin horretako Espainiako Monoplazen Txapelketan lider dago. Lehenengo banakako erakustaldiak eskainiko dituzte, eta ondoren baliteke bata bestearen kontra ere lehiatzea. Ekimena Urieni "orain arte egingandako lana aintzatesteko eta

etorkizunerako animoak emateko" ere erabiliko dute, Aitor Martínezen arabera.

Motor klasikoak

Ondoren, 70eko hamarkadako moto klasikoek lasterketa hasiko dute. Motor gainean ibiliko

Txus Jaiok eta Igor Urien gazteak auto erakustaldiak eskainiko dituzte zirkuituan

Motor klasikoek lasterketan Faustino Hernández gidari ohi durangarra ere ariko da

supermoto gidaririk onenez gainera, moto klasikoek lasterketa antolatu dute, eta Txus Jaiok auto gidariaren eta Igor Urien abadiñar gaztearen erakustaldiak eskainiko dituzte. Horri musika, jan-edana, MotoClub Manguetak antolatutako motor kontzentrazioa... gehitu behar zaizkio.

17:00etan hasiko den Euskadiko Txapelketako azkeneko lasterketan lehiatuko dira 30 bat gidari, 1,1 kilometroko zirkuituan. Orain arteko sei laster-

Aitor Martínezek matematikoki irabazita duen Euskadiko Txapelketa ospatuko du

EGITARAUA

16:30ean: entrenamendu ofizialak.
17:00etan: Euskadiko Supermoto Txapelketako lasterketa.
18:00 inguruan: Txus Jaiok eta Igor Urien auto gidariaren erakustaldiak. **Segidan** moto klasikoek lasterketa.
20:00etan: Musika kontzertuak: Jardin Inferno eta talde gonbidatua.

MotoClub Manguetaren motor kontzentrazioa:

09:00etan: Gosaria eta izen-ematearen irekiera.
10:00etan: Moto ibilaldia- ren hasiera.
11:30ean: Hamaiketako.
13:30ean: Astolan amaitu- ko da ibilaldia.
14:00etan: Bazkaria.
Egun osoan zehar: Txos- na Astolako merenderoan.

direnak ere 'klasikoak' dira; tar- tean dago Faustino Hernández Durangoko pilotu ohia, 80ko hamarkadan Espainiako txapel- dun geratutakoa 125 zentime- tro kubikotan. Lasterketak gehiago izango du erakustaldi- tik, ekarriko dituzten motorrak "benetako harribitxiak direlako".

Musika kontzertuak

Egunari musika kontzertuek emango diote amaiera. Hain zuzen ere, kontzertu horiek dira jaialdia domekatik zapatara aldatzeko arrazoia: "Iaz txapel- keta eta erakustaldiak amaitu zirenean jende gehiena joan egin zen, domeka zelako. Beraz, aurten zapatuan antolatzea erabaki dugu, kontzertuetara jende gehiago geratuko dela uste dugulako". Besteak beste, Jar- din Inferno taldeak joko du.

Ekitaldi horiez gainera, egun osoan zehar abiadura motorren erakusketa antolatuko dute, eta kirol materiala eroste- ko standak ere egongo da. ■ J.D.

Durangoko Mangueta klubak motorren kontzentrazioa egingo du

Biharko motorshowan parte hartuko du egoitza Durangon duen MotoClub Manguetak ere. Hain zuzen ere, iaz legez, motor kontzentrazioa egingo dute Astolan.

Bihar 09:00etan izango da ekimenen parte hartzeko izen-ematea (bost euro). 10:00etan Bizkaian zeharreko ibilaldiari ekingo diote; besteak beste, Muniketatik Marki- nara eta handik Goiuriara joango dira, bertan hamaiketa- koa egiteko. Bazkalorduan helduko dira Astolara, 14:00ak inguruan. Egun oso- an zehar, Astolako merende-

roaren ondoan, txosna ere ipi- niko dute Mangueta klubeko kideek. Inguru hartan bertan, ilaran aparkatuta egongo dira kontzentrazioan batutako

motoak ere. Iazko kontzentra- zioan 130 bat moto batu zituz- ten. Standa ere ipiniko dute kamisetak eta materiala saltzeko. ■ J.D.



Parte-hartze handia aurten ere Sorginen Lasterketan

Domekan, Axpeko irteera puntuan, 260 korrikalari batuko dira Sorginen Lasterketako hirugarren aldian elkar neurtzeko



Gizonetan Jorge Hernando eta emakumeetan Nerea Amilibia dira irabazteko favorito.

Aurten ere Atxondoko Sorginen Lasterketa arrakastatsua izango da parte-hartzeari dagokionez. Korrikalariak, besteak beste, Urkiolako Parke Naturalean zehar daramatzan lasterketak apurka nortasun propioa garatu du- eta askok agendan markaturik duten hitzordua da. 260 lagunek eman dute izena.

25 kilometroko lasterketa domekan 10:00etan hasiko da, Axpeko San Juan plazan. Pol-Pol eta Zabalaunditik gora, Aramaioko bidegurutzera helduko dira hamargarren kilometroan. Handik Arrazolako Topera jaitziko dira. Ibilbide bietatik laburrena aukeratu dutenek (15 kilometrokoa) hortxe izango dute helmuga. Gainerakoak Betsaidera igo eta handik San Rokera joango dira, Axpen helmugaratu aurretik.

Lasterketak 1.300 metroko desnibel positiboa du, eta azpimarratzeko moduko igoera bi ditu: lasterketa hasi eta segituan Axpetik Larranora igoko dira (260 metrotik 977 metrora, 4,5 kilometrotan); bigarren igoera gogorra Topetik Betsaiderakoa da: 255 metrotik 545 metrora, 2,5 kilometroan.

Aurtengo aldia irabazteko favorito nagusiak Jorge Hernando burgostarra eta Nerea Amilia aiarra dira. Irabazleek 250 euro jasoko dituzte, gizonetan zein emakumeetan; bigarrenek 125 euro eta hirugarrenek 75 euro irabaziko dituzte.

Iaz Aitor Osak irabazi zuen Sorginen Lasterketa gizonetan, 1.58.16-ko denboraga egin zuelarik. Emakumeetan, berriz, Maitane Txueka nagusitu zen (2.38.20). ■ J.D.

Lasterketak igoera gogor bi ditu: Axpetik Larranorakoa eta Topetik Betsaiderakoa

Ohi lege, ibilbide bi antolatu dituzte; 25 kilometroko luzea, eta laburragoa, 15ekoa

Gaztetxoentzako duatloia domekan Muntsaratzen

Laubideta Triatloi Taldeak 13 urtera artekoentzako duatloia antolatu du domekan

Laubideta Triatloi Taldeak I. Duatloi Txikia antolatu du domekarako, Muntsaratzen. Bost mailatan banatuta, korrika eta bizikletan ibiliko dira gaztetxoak. Izen-ematea egunean bertan egin behar da, Muntzarazko aterpean 10:00etatik 11:00etara, eta doakoa da.

Bost mailatan banatuta korrika eta bizikletan ibiliko dira gaztetxoak Muntsaratzen

Lasterketak 11:30etik aurrera hasiko dira. Bost urtera artekoek 300 metro egingo dituzte arineketan; ondoren, 600 bizikletan eta amaitzeko 150 korrika. 6-7, 8-9 eta 10-11 urte arteko lasterketetan azkeneko korrika saioan gehitzen da distantzia; lehenengoak 200 metro egingo dituzte, bigarrenek 250 metro eta hirugarrenek 300 metro.

Azkenik, 12-13 urte artekoen ibilbidea honako hau da: 800 metro korrika, 1.400 bizikletan eta beste 300 arineketan. Parte-hartzaile guztiek jasoko dute oroigarri bana. ■ J.D.

Gotzon Gomez
•Errugbi entrenatzailea



Ohorezko Errugbi Liga abian

Joan zen asteburuan hasi zen ohorezko errugbi RENFE Liga. Aurten ere Valladolideko Cetransa El Salvador dugu favorito nagusia, aditu guztien iritziz; aurretik talde sendoa bazuen ere, fitxaketa ugari eta kalitate handikoak egin dituenek, are gehiago. Esandakoa berresteko, 26-5 mendean hartu zuen Sevillako Cajal R. Ciencias. Valladoliden auzokide duten Vrac dugu alternatibarik sendoena. Beraiek izan ziren lau entsegu eta bonus puntua lortu zuten talde bakarra.

Euskal taldeei dagokionez, gogoratu beharra dugu aurten ere hiru ordezkari izango ditugula goren-go mailan. Lehen jardunaldian derbia izan genuen Altamiran, Ordizia eta Gernikaren artean; 33-31 irabazi zuten ordiziarrek. Goierriarrek, iazko bide beretik jarraituz, etxean sendo egongo direla dirudi, zale ugari laguntza aprobetxatuz. Gernikarrek, berriz, fitxaketa ugari eta onak egin dituzte, eta ematen du hor goian egoteko moduan daudela. Bertan, Mikel Blanco ikasle eta taldekide ohia daukagu. Zortetik onena opa nahi diot, igandean debuta egin zuen hasierako hamabostekoan, eta polito aritu zela komentatu didate.

Pegamo Bera Berarekin bukatuko dut. Aurrean La Vila taldea zuen, iazko errebelazioa, eta nahiz eta amaieran markagailuak 28-33 adierazi, Alicantekoak nagusi izan ziren, eta iazko papera berdindu edo hobetzeko bidean daudela ematen du.

Hausnarketa moduan, talde bakarrak besterik ez ditu lau entsegu gauzatu, eta lau partidutan bost puntu edo gutxiagoko aldea egon da. Horrek jaurtitzailen lana nabarmentzen du; jaurtitzailen on batek puntu ugari bermatzen du denboraldi amaieran, eta ematen du euskal talde guztiek badutela. Aste honetan derby berri bat: Gernika-Bera Bera. Hau ez da gelditzen!

Luzapenean ihes egin zion garaipenak Kulturalari

Leioak puntu bat eraman zuen Tabiratik, 92. minutuan berdinketaren gola sartuta

Galtzen hasi, partiduari buelta ematea lortu, eta hiru puntuek Durangon geratu behar zutela zirudienean, Leioak 92. minutuan berdinketaren gola sartu zuen. Kulturalaren zaleen aurreko debuta zapuztuta geratu bazen ere, taldeak erreakzionatzeko ahalmena baduela erakutsi zuen beste behin.

Kulturala galtzen hasi zen eta, joan zen astean lege, partiduari buelta ematea lortu zuen, seguruenik play offerako

borrokan ibiliko den Leioaren kontra. Muniozgurennek berdindu zuen neurketa lehen zatian.

Bigarren zatian Iker Martinezi penaltia egin zioten, eta lbaik hartu zuen penaltia jaurtitzeko ardura; ez zuen barkatu.

Lehenengo jardunaldian irabazi ondoren, Kulturala seigarren dago sailkapenean, lau puntugaz. Puntu kopuru bera dute Leioak, Zallak eta Zamudiok ere. Asteburuan Amurrioren zelaia bisitatuko du. ■ J.D.



Kulturala seigarren dago sailkapenean. Ana Dominguez

Bihar ekingo diote 16 zesta eskolek San Fausto Txapelketari

Durangoko bikote bi daude tartean; Egoitz Urrejolak Asier Azkarategaz jokatu du, eta Mikel Arrizabalagak Iñigo Aldekoagaz. Azken hauek Tolosako en kontra jokatu dute etzi

Bihar arratsaldean ekingo diote XVII. San Fausto Zesta Txapelketari Durangoko Jai Alai pilotalekuan. Txapelketa irabazteko faboritoen artean dauden Berriatuaren eta Gernikaren jarduna ikusteko aukera egongo da, gainera. Lehenengoek Zumaiaren kontra jokatu dute, eta bigarrenak Donostiaren aurka.

Urriaren 17ko finalera arteko asteburu guztietan gozatu ahal da zestarekin. Zapatuetako partidua 18:30ean hasiko dira, eta domekakoak 11:30ean. Hain zuzen ere, etzi jokatu dute Durangoko eskolako Mikel

Berriatua, Gernika, Andoain, Cabanillas eta Mutriku dira faboritoak

Arrizabalagak eta Iñigo Aldekoak Tolosako bikotearen kontra. Txapelketako sistemari jarraituz, irabazleek aurrera egingo dute eta galtzaileak kanporatuta geratu dira. Lekeition eta Elizondoren arteko kanporaketa ere etzi jokatu dute. Durangoko bigarren bikoteak, Egoitz Urrejolak eta Asier Azkarategaz osatutakoak, hurrengo asteburuan hasiko du txapelketa.

Aurten 16 pilota eskolak parte hartuko dute txapelketan.



Durangoko pilota eskolako zestalariak ere lehiatuko dira bihar hasiko den txapelketan. K.Aginako

Bizkaitik, aipatu ditugunez gainera, Markina eta Getxo ere lehiatuko dira. Gipuzkoatik Andoainek eta Mutrikuak —biak faboritoen zerrendan— ere parte hartuko dute. Nafarroatik, Elizondoz batera, Cabanillas eta Noaingo eskoletako ordezkariak etorriko dira. Amaitzeko, parte-hartzaileen zerrenda Gasteiz eta Kataluniak osatzen dute.

Kataluniako bikote bik ere parte hartuko dute zesta txapelketan

Txapelketaren maila altua kontuan hartuta, gure ordezkariak oso gaitz izango dute finaleko sailkatzea. Hala ere, sekula ez da jakiten. Esaterako, orain urte bi Eneko Ugartek eta Iñaki Garita durangarrek irabazi zuten Sanfaustoetako txapelketa. Lehenengo Filipinetan jokatzen dabil orain, eta bigarrena Ameriketara. ■ J.D.

Lekeition bigarren geratu da Abasolo abadiñarra

Joan zen asteburuan Euskaldun Torneurako puntuagarria den Oier Elorriagaren Oroimezko lasterketa korritu zuten Lekeition, eta Borja Abasolo abadiñarra bigarren geratu zen. Pablo Torresek irabazi zuen, Millo gainean ihes egin da. Abasolok tarteko helmugetik maillota jantzi zuen.

Leanizbarrutia eta Murgoitio ere lehen hamarretan sartu ziren

Lehenengo hamarren artean Durangaldeko beste txirrindulari bi ere gertatu ziren: Egoitz Murgoitio —Hirumet taldea— abadiñarra seigarren, eta Iban Leanizbarrutia —Cespa-Euskadi— elorriarra zazpigarren. Bestalde, Ataungo lasterketan Juan Sebastien Tamayo —Cafés Baqué— bigarren sailkatu zen. ■ J.D.

Ligaren atarian lagunarteko derbia: Mallabia-Kurutziaga

Domekan VI. Sergioren Oroimenezko partidua jokatu dute, Zaldibarko kiroldegian, Mallabia Bastidak eta Kurutziagak. Talde biak Euskal Ligan dabilta, eta irailaren 25etik 26rako asteburuan hasiko duten ligarako prestatetarako balioko die neurketak; 17:30ean hasiko da.

Maila berean jokatu du Sasikoa Bk ere, eta lehen jardunaldian Kurutziaga eta Sasikoa Bren arteko derbia dago. Mallabia Bastida Tolosala taldearen aurka ariko da. ■ J.D.

Kurutziaga taldea osatzeko emakume bila areto futboleant

Durangoko Kurutziaga Ikastola areto futbol taldeak emakumeen taldea atera zuen iaz estreinakoz. Denboraldi ona osatu eta liga hirugarren postuan amaitu zuten. Orain, laster hasiko duten denboraldi berriari begira taldea osatzeko jokalaririk bila dabilta.

Taldera batu ahal izateko baldintza bakarrak 15 urtetik gora edukitzea eta ondo pasatzeko gogoia izatea dira. Hona helbidean apuntatu daiteke: kurutziagafs@gmail.com. Telefono bat ere ipini dute aukerara: 620 247 381. ■ J.D.



Euskal Kopan lehen partiduan galdu zuten durangarrek. K.Aginako

La Salle, Urdaneta eta EHU dira aurten Baqué Torneoko gonbidatuak

Tabirako Baqué EHUn kontra jokatu du finalerako pasea, bihar arratsaldean

Urteroko ohiturari eutsiz, liga hasteko aste bi falta dituenean, Tabirako Baqué Torneoa antolatuko du astebururako. Bihar finalerdia jokatu dituzte, eta domeka goizean hirugarren eta laugarren posturako lehiaren ondoren, finala jokatu dute.

Biharko irabazleek domeka eguerdian jokatu dute finala

Bihar, 17:00etan, Urdaneta eta La Salle lehiatuko dira. Ondoren, 19:00etan, Tabirako Baqué eta Arabako EHUn arteko kanporaketa hasiko da. Galtzaileek domekan jokatu dute, 10:00etan, eta irabazleek arteko finala, berri, 12:00etan jokatu dute.

Joan zen asteburuan Euskal Kopa jokatu zuen Tabirako Baqué, eta lehenengo partiduan kanporatu zuen Aurteneche Maquinariak. Kopa Lan Mobel taldeak irabazi zuen, finalen Cafés Aitona menderatuta.

Emakumeak Bilbon

Bestalde, emakumeek Nagore Saratxaga Torneoa jokatu dute asteburuan, Leioan. Bihar, 19:00etan Irlandesas taldearen kontra jokatu dute. Aurretik, 17:00etan, Estadio Casa Blanca eta Gernikak neurtuko dituzte indarrak. Finala domeka eguerdian jokatu dute. ■ J.D.

Emakumeek Nagore Saratxaga Torneoa jokatu dute Leioan

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegia



NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urklzu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96



- Amaia Salba
- Parafarmazia dauka Durangon

Gripea saihesten

Urte sasoi aldaketagaz gripea agertzen da. Produktu naturalekin prebenitu ahal izateko ekinazea eta propolia ditugu.

Zer ezaugarri ditu propoliak?
Erretxinadun substantzia da. Erleek arboletatik eta begetaletatik hartzen dute. Eztarrirako, urdailerako, azalerako eta arnas sistamarako ona da.

Eta ekinazea?
Landare biologikoa da. Antiinflamatorioa eta orabaintzailea da, beste ezaugarri batzuen artean.

Biak batera hartu daitezke?
Bai. Pilulak, xarabeak, kremak eta estraktuak daude. Estraktu purua sasoi aldaketan aste pare batean hiru bider egunean hartzen da. Gero dosi bakarra mantentzen da. Beste hamabostaldi bat ere egin daiteke. Prebentziorako bakuna baten lakoa dal.

Udazkenean bakarrik hartu daitezke edo beste urte-sasoi batzuetan ere bai?

Jende askok udaberrian ere hartzen du. Badaude alergiengatik katarro asko izaten dituztenak, eta ondo doakie.

Nork hartzea gomendatzen duzu?
Umeengandik nagusietara hartu daitezkeen produktuak dira. Haurtzaindegietako umeei, esate baterako, oso ondo etortzen zaie. Gaixotu arren, arinagoa izaten da. Nagusiagoen kasuan ere bai.



ZUTOIA
• ileapaindegia •

- Tratamendu kapilarra
- Estentsioak
- Unisex
- Solorium bertikala

ORDUTEGIAK: asteartea-barikua: 9:00-19:00 • zapatua 7:30-14:30

Ambrosio Meabe, 2 • Tel.: 94 621 82 18



iunik ileapaindegia

astelehenerik
asteazkenea
10:00-21:00

osteguna
eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

Estetika Zentroak



Parafarmazia • Dietetika

Amaia

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96



Cristina Agirre
• apaindegia •

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango



Virginia Ansorena
• estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekainen diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan

San Agustinalde, 1ºA-1ºC, 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbl.: 665 716 017



Ana Camarero
• apaindegia •

LASER
FOTODEPILAZIO
MEDIKU-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari berok depilazioa
- Argizari epelez depilazioa
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango



izen ematea: irailaren 13tik 17ra

Lekua: Pinondo Etxea (Informazio bulegoa)
Ordutegia: Astelehenetik ostegunera (10:00-14:00/17:00-19:00)
Ostiraletan (10:00-15:00)

* Plazak zozketa bidez banatuko dira.
Zozketa eguna: Irailaren 21ean, goizeko 10:00etan Gazteen Informazio Bulegoan
Izen ematearen kuota: 6euro Durangon errolatuentzat, 12 euro gainontzekoentzat

TAILERRAK	EGUNAK	KODIGOA	ORDUTEGIA	HASIERA	HILEKO €	TOKIA	ADINA
MARRAZKIGINTZA	Astelehena Asteazkena	40001 40002	17:00-19:00 19:00-21:00	Irailaren 29a	26 euro + 26 matrikula	Ezkurdi Aretoa	15 urtetik aurrera
MARGOGINTZA	Asteartea Osteguna	40003 40004 40005	15:00-17:00 17:00-19:00 19:00-21:00	Irailaren 30a			
ZERAMIKA	Asteartea Osteguna	40006 40007	17:20-19:20 19:20-21:20	Irailaren 28a	26 euro + 26 matrikula	Pinondo Etxea	
ENKAJEA	Astelehena	40008 40009	15:00-18:00 18:00-20:30	Urriak 18	15 euro		
PACHTWORK	Asteazkena	40010	17:00-19:30	Urriak 20	23 euro		
BOLILLOAK	Ostirala	40011 40012	15:30-18:00 18:00-20:30	Urriak 1	17 euro	Landako Entsaio Lokalak	8 urtetik aurrera
TRIKITIXA	Asteartea Asteazkena	40013	17:00-21:00	Irailak 29	33 euro		12 urtetik aurrera
ALBOKA	Asteazkena	40014	16:00-22:00	Irailak 29	45 euro		
KITARRA ETA BAXUA	Larunbata	40015 40016 40017	10:00-11:00 11:00-12:00 12:00-13:00	Urriak 2	26 euro		
PANDERO	Astelehena Asteazkena	40018 40020	17:00-20:00 17:00-20:00	Irailak 27		6 urtetik aurrera	

Tel.: 94 6030030 • Faxe: 94 6200967 • informazioa@durango-udala.net • Pinondo plaza 1 • Durango



anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	
Saldu / Erosi Errentan eman / Errentan hartu Lan eskariak / Lan eskaintzak Galdu / Aurkitu Eman / Hartu Eguazteneko 19:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.		

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitetz, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org.
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23
Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trasteleku (komuna ateratzeko aukera dauka) eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Igogailua jartzekotan dira. Berogailua eta leiho berriak dauzka. Etxe guztiak kanpora ematen du. Telefonoa: 655 71 21 05

Abadiño. Muntzaratzen etxebizitza salgai. 85 m², 3 logela, harrera, sukaldea-egongela, bainugela bat eta beste komun bat, balkoi handia, garajea eta trasteroa. Telefonoa: 94 681 68 91.

Abadiño. Abadiño-Zelaietan etxebizitza salgai, 124 m², 2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, garajea eta ganbara. Bizitzera sartzeko prest. Telefonoa: 691 73 10 75

Abadiño. Etxebizitza salgai abadiñon, san trokaz kalean (zelaieta). Bi logela, trasteroa eta garajea. Ondo hornitua. Aukera ona. Telefonoa: 935 743 624

Berriz. Berrizen pisua salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. Telefonoa: 647 777 392

Durango. 98 m²-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea-jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular 12 m² eta 8 m²-koak eta baita terraza komunitarioak ere. Altzairuz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, lau armairu enpotratu, aluminiozko leihoak, atek eta zorua aldatuta. Garajea eta igerilekuarekin. Telefonoa: 655 70 46 84

Durango. Alde zaharra. 71 m². Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parke-

ta (elondo), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeako leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 229.000 euro. Telefonoa: 607 71 53 53

Durango. Etxebizitza salgai durangon. 3 logela, egongela, sukaldea (jantzita) trastelekuagaz eta balkoiagaz, eta komuna. Oso eguzkitsua da eta etxe osoak kanpora ematen du. Bi kotxerentzako garajea aukeran. Prezio onean. Telefonoa: 656 76 46 73

Durango. Durangon etxebizitza salgai. Andra Maria kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpora ematen du; oso argitsua da. Pisu altua 30 m²-ko terrazarekin. 220.000 euro. Telefonoa: 696 255 083

Durango. Atiko zoragarria salgai Durangoko alde zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua. Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Telefonoa: 659 425 890

Elorrio. Pisu eder bat salgai Elorrioren Berritua, 124 m², gas naturaleko berogailua, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Derrigorrezkoa da ikustea. Prezioa: 264.500 euro (44.000.000 pta). Telefonoa: 685 73 48 25

Elorrio. Elorrioren pisu eguzkitsua, garaje eta trastelekuagaz salgai. Guztiz berriztua. Bi logela, sukalde-jangela, egongela, eta komuna. Prezio oso interesgarria. Telefonoa: 664 47 58 58 edo 615 73 27 27

Elorrio. Pisu eder bat salgai, Elorrioko Auzoa auzoan. Leku zoragarria. Telefonoa: 639 020 581

Garai. Oar-erdikoa baserria, 6. Garaiko san migel auzoan. Udaletxetik 150 metrora. Hegoaldera begira. 300 m²-ko solairua. 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritzarako edo landa-etxerako oso egokia. Erreformatzeko. Proiektua

aurkeztuz gero, etxebizitza 2 egiteko aukera. Telefonoa: 639 833 489

lurreta. Pisua saltzen da lurretan, Maspe kalean. 3 logela, sala, sukaldea eta komuna. Guztiz berriztatua. Igogailuarekin. Bizitzera sartzeko prest. Telefonoa: 653 011 897 edo 648 102 025

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai Mallabian. Koka-pen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. Telefonoa: 655 70 26 47

Zornotza. Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m²-ko lur-sailarekin. Aukera paregabea! 695 70 18 58

ERRENTAN EMAN

Durango. Durangoko Tabira auzoan pisu konpartituan logela alokagai, 250 euro. Harremanetan jartzeko posta elektronikoa erabili: miripz@yahoo.es

Elorrio. Elorrioren etxe berri-berria alokatzen da. Leku onean kokatuta. Telefonoa: 647 183 088 edo 646 377 687 (arratsaldez)

Zaldibar. Logela bat alokagai Zaldibarren. Telefonoa: 655 739 792

Zaldibar. Logela bat dut alokagai, Zaldibarren. Telefonoa: 655 739 792

ERRENTAN HARTU

Berriz. Berrizen edo inguruan pisua alokatu nahi genukeen bikote bat gara. Deitu: 669 956 450

Durango. Durangon 1-2 logelako pisua alokatu beharra dugu. Olatz. Telefonoa: 627 470 544

Elorrio. Elorrioren 2-3 gelako pisua alokatuko genuke. Harremanetarako, deitu 635 350 071 telefonora.

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Durango. Torrevieján bungalowa alokagai. Hiru logela, sukalde-jangela eta solariuma dauka. Urbanizazio pribatua, berde gune eta igerilekuagaz. Telefonoa: 615 77 96 22.

PISUA KONPARTITU PISUKIDE BILA

Durango. Pisua konpartitzen dut. Logela bat ematen dut errentan. Telefonoa: 661 84 79 37

LOKALAK ERRENTAN EMAN

Atxondo. Apatan 40 m² lokala alokagai. Komuna ipinita dauka. Telefonoa: 686 13 71 23

GARAJE/ TRASTEROAK

SALDU

Durango. Aukera handia!! Txibitenan (Jesusitak ikastexareen ondoan) garaje bat saltzen dugu. Plaza irekia eta oso ona. Deitu telefono hauetara: 660 38 59 95 / 660 38 60 43

Elorrio. Garajea salgai. Telefonoa: 658 759 264

Teknologia INFORMATIKA/ BIDEOJOKUAK

GAINERAKOAK

